

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

354/2016 Foru Agindua, azaroaren 21koa, deialdia eta oinarri espezifikoak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario gisa (administrazio orokorreko eskala, azpieskala teknikoa) sartzeko hautaketa prozesua arautu behar dutenak

Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 499/2016 Erabakiaren bidez onartu zen Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko 2016rako enplegu eskaintza, zeinetan jasota baitaude dagozkien hautaketa prozesuen bidez hornitu beharko diren plazak.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuaren azaroaren 18ko 337/2016 Foru Aginduaren bidez oinarri orokorrak onartu ziren, aipatu den enplegu publikoaren eskaintza horren ondorioz Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrearen zerbitzura karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuak arautuko dituztenak.

Hautaketa prozesu bakoitza gauzatzeko, beharrezkoa da eskala, azpieskala eta klase bakoitzeko plazen deialdia arautu behar duten oinarri espezifikoak argitaratzea, eta horietan plaza bakoitzaren ezaugarri bereziak zehaztu beharko dira.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik,

XEDATZEN DUT

Lehenengo artikulua. Oinarri hauen gai diren hautaprobetarako deia egitea.

Bigarren artikulua. I. eranskin moduan jasotzen diren oinarri espezifikoak onartzea, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario gisa (administrazio orokorreko eskala, azpieskala teknikoa) sartzeko hautaketa prozesua arautu behar dutenak.

Hirugarren artikulua. II. eranskin moduan jasotzen den gai zerrenda onartzea.

Laugarren artikulua. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik –azaroaren 26ko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta–.

Gasteiz, 2016ko azaroaren 21a

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

I. ERANSKINA

OINARRI ESPEZIFIKOAK

ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA, AZPIESKALATEKNIKOAK (Kodea: 12616)

1. DEI EGITEN DEN PLAZAK

Dei egiten da administrazio orokorreko eskalako azpieskala teknikoko 10 plaza –A taldea, A1 (A) azpitaldea– oposizio-lehiaketa bidez hornitzeko, ondoren azaltzen den bezala banaturik:

– 9 plaza sistema irekiko txanda orokorrean, honela banaturik:

- 5 plaza derrigortasun datadun 3. hizkuntza eskakizunarekin.
- 4 plaza derrigortasun datarik gabeko 3. hizkuntza eskakizunarekin.

– 1 plaza sistema irekiko ezinduen txandan, derrigortasun datarik gabeko 3. hizkuntza eskakizunarekin.

2. BETEKIZUNAK

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, zuzenbideko edo politika, ekonomia edo enpresa zientzietako lizentzia edo gradua, merkataritzako intendente edo aktuario titulua edo gradu baliokidea eduki beharko da, edo horiek jaulkitzeko eskubideak ordainduta eduki. Atzerrian lortutako tituluak izatekotan, horien homologazioa frogatzen duen egiaztagiria eduki beharko da.

Halaber, dei egindako 10 plazetako 1 betetzeko, horrez gainera, beharrezkoa izango da B gidabaimena edukitzea.

3. HAUTAKETA PROZESUA

3.1. Oposizio aldia

Aldi honetan, bi ariketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta baztertze indarrekoak.

3.1.1. Lehenengo ariketa:

Ariketa honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa hamar (10) puntu da. Horren barruan nahitaezko bi proba egin beharko dira:

– Lehenengo proba:

Idatziz erantzun beharko zaio, epaimahaiak erabakitzen duen gehieneko denboran, oinarri hauetako gai zerrendaren zati komuneko edukien inguruko galdetegi bati. Aukeratzeko launa erantzun dituzten galderek osatuko dute galdetegia.

– Bigarren proba:

Idatziz erantzun beharko zaio, epaimahaiak erabakitzen duen gehieneko denboran, oinarri hauetako gai zerrendaren zati espezifikoko edukien inguruko galdetegi bati. Aukeratzeko launa erantzun dituzten galderek osatuko dute galdetegia.

Lehenengo probara aurkeztu ez direnak ezin izango dira inola ere bigarren probara aurkeztu.

Zuzeneko puntuazioa formula honen emaitza izango da: puntuazioa berdin erantzun zuzenen kopurua ken erantzun okerren herena ($P = Z - O/3$). Kontu horretarako, erantzun gabeko galderei ez zaie oker iritziko.

Epaimahaiak erabakiko du, izangaiak nortzuk diren jakin baino lehenago, gutxieneko bost (5) puntuko azken puntuazioa lortzeko beharrezkoa den ezagutza maila.

Kanporatuta geratuko dira bi probetan lortutako puntuazioak baturik bost (5) puntutara heltzen ez diren izangaiak.

Epaimahaiak gutxieneko bost (5) puntuko azkeneko puntuazioa lortzeko beharrezkoa den ezagutza maila ezarri eta gero, zuzeneko puntuazioak azken puntuazio bihurtuko dira, proportziorako banaketa baten arabera, halako moduan non hamar (10) puntuko azken puntuazioa bat datorren gehienez ere lor daitekeen zuzeneko puntuazioarekin. Eragiketa hauek guztiak izangaiak nortzuk diren jakin gabe egingo dira.

3.1.2. Bigarren ariketa

Epaimahaiak planteatutako kasu praktiko edo teoriko-praktiko bat edo gehiago egin beharko dira, honekin batera doan gai zerrendaren zati espezifikoarekin lotuak, hark erabakitzen duen gehieneko denboran.

Ariketa hau egitean izangaiek bakar-bakarrik erabili ahal izango dituzte epaimahaiak, ariketaren izaera eta edukia kontuan harturik, erabakitzen dituen kodeak eta antzekoak edo bestelako material teknikoak.

Bigarren ariketa zero (0) puntutik hamasei (16) puntura kalifikatuko da, eta zortzi (8) puntuko kalifikaziora heltzen ez direnak kanporatuta geratuko dira.

Ariketa hau kalifikatzeko, kontuan hartuko dira erantzunen zehaztasuna, sintesirako eta analisirako gaitasuna, garatutako ideien aberastasuna eta horien azalpenaren argitasuna eta zuzentasuna.

3.2. Euskara proba

Euskara proban, hizkuntza horren ezagutza ebaluatuko da izangaiak hautatzen duen 1., 2., 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba ginez.

Dauden lau hizkuntza eskakizunetakoren bat egiaztatuta daukatenez edo balio bereko titulu edo ziurtagirietako bat daukatenez euskara ariketak egiteko eguna baino lehenago aurkeztu beharko dituzte titulu edo ziurtagiri horiek egiaztatzen dituzten agiriak, helbide honetan:

Euskara Zerbitzua - Funtzio Publikoko Zuzendaritza - Arabako Foru Aldundiaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saila. Probintzia plaza, 14-5.a 01001. Gasteiz.

Hizkuntza eskakizunetakoren bat egiaztatzea hautaketa prozesuaren gainerakoan lor daitekeen gehieneko puntuazioaren gainean baloratuko da, ondoko era honetan:

- 1. HE: 1,63 puntu.
- 2. HE: 2,03 puntu.
- 3. HE: 3,58 puntu.
- 4. HE: 3,98 puntu.

3.3. Lehiaketa aldia

Lehiaketa aldian, izangaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Haietako bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak esleituz egingo da.

3.3.1. Esperientzia

Herri administrazioetat jotzen diren erakunde eta organismoetako lan esperientzia baloratuko da, gehienez ere sei (6) puntutaraino, 0,05 punturekin edozein herri administrazioetan lan egindako hilabete oso bakoitzeko, baldin eta egin badira administrazio orokorreko azpieskala teknikoko A1 (A) azpitaldekoentzat irekita dauden lanpostuetan edo baliokidean, Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan xedatutakoaren arabera, eta edozein lotura juridikoren pean, salbu eta zerbitzuen errentamendu kontratu zibil edo merkataritzakoen, beken eta prestakuntza praktiken bitartez emandako zerbitzuak.

Ondorio horietarako, herri administrazioetat abenduaren 26ko 70/1978 Legeak barnean hartzen dituenak jotzen dira, berekin dakartenak herri administrazioako aurretiako zerbitzuen aitortpena, merkataritza sozietate publikoak eta fundazioak kanpo daudelarik.

3.3.2. Informatika ezagutza

Gehienez ere 0,50 puntutaraino ITxartelaren ziurtatze sistemaren bitartez informatikaren ezagutza mailak egiaztatzeagatik, ondoko baremo honen arabera:

PROGRAMA	PUNTUAK
Windows 7	0,10
Microsoft Word 2010 aurreratua	0,10
Microsoft Word 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Word XP aurreratua	0,10
Microsoft Word 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Word 2007 aurreratua	0,10
Microsoft Power Point XP	0,10
Microsoft Power Point 2003	0,10
Microsoft Power Point 2007	0,10
Microsoft Power Point 2010	0,10
Microsoft Excel XP aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2007 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2010 aurreratua	0,10
Microsoft Access XP aurreratua	0,10
Microsoft Access 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Access 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Access 2010	0,10
Microsoft Outlook 2003 (gaztelania)	0,10
Microsoft Outlook 2003 (euskara)	0,10
Microsoft Outlook XP	0,10
Microsoft Outlook 2010	0,10
Internet aurreratua	0,10
Office XP	0,10

Aplikazio baten bertsio jakin baten ziurtapenak baliogabetu egingo ditu bertsio zaharra-
goenak.

Arabako Foru Aldundiak erakunde jaulkitzaileari ofizios eskatuko dio izangaiek lortu dituzten egiaztapenak ziurtatzeko, oinarri orokorretan ezarritako epearen barruan.

3.4. Praktika eta prestakuntza aldia

6 hilabete iraungo duen praktika eta prestakuntza aldi bat egingo da, oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat etorriz.

II. ERANSKINA**GAI ZERRENDA****1. GAI KOMUNAK**

1. gaia. Espainiako Konstituzioa (I). Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak (10-55 artikulua).
2. gaia. Espainiako Konstituzioa (II). Estatuaren lurralde antolamendua (137-158 artikulua).
3. gaia. Europar Batasuna. Erakunde eta organismo nagusiak, haien osaera eta eskumenak: Kontseilua, Batzordea, Parlamentua, Justizia Auzitegia, Europako Kontu Auzitegia, Eskualdeen Batzordea, Europako Inbertsio Bankua.
4. gaia. Euskal Herriko Autonomia Estatutua (I). Atariko titulua (1-9 artikulua). I. titulua: Euskal Herriaren eskumenak (10-12 artikulua). II. titulua: Euskal Herriko aginteak (24-39 artikulua).
5. gaia. Euskal Herriko Autonomia Estatutua (II). III. titulua: ogasuna eta ondarea (40-45 artikulua).
6. gaia. Arabako Batzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa (I). 1983ko martxoaren 7ko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko antolamenduari buruzkoa (1-14 artikulua).
7. gaia. Arabako Batzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa (II). 1983ko martxoaren 7ko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko antolamenduari buruzkoa (15-33 artikulua).
8. gaia. Arabako Batzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa (III). 52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoarena (3, 4, 17, 18, 38 eta 39 artikulua). 4/2000 Foru Araua, otsailaren 21koa, Arabako Foru Aldundiko, bere erakunde autonomoetako eta foru sozietate publikoetako goi kargudunen araubidea arautzen duena (1-6 artikulua).
9. gaia. Enplegu Publikoa (I). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen duena enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua. Langile motak (8-13 artikulua). Enplegatu publikoen eskubideak (14-20 artikulua). Enplegatu publikoen eginbeharrak. Jokaera kodea (52-54 artikulua).
10. gaia. Enplegu Publikoa (II). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen duena enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua. Zerbitzu harremana eskuratzea eta galtzea (55-68 artikulua).
11. gaia. Enplegu Publikoa (III). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen duena enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua. Administrazio egoerak (85-92 artikulua). 6/1989 Legea, euskal funtzio publikoarena. Hizkuntza normalizazioa (97-99 artikulua).
12. gaia. Administrazioa Prozedura (I). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenarena. Jarduera arau orokorrak (13-28 artikulua). Epe mugak eta epeak (29-33 artikulua). Egintzen eraginkortasuna (37-42 artikulua).
13. gaia. Administrazioa Prozedura (II). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenarena. Administrazio prozeduran interesdun denaren eskubideak (53. artikulua). Prozeduraren antolamendua (70-74 artikulua). Ebazpena (87-92 artikulua).
14. gaia. Sektore Publikoko Kontratuak (I). 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, onartzen duena sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua. Xedea eta aplikazio eremua (1-4 artikulua). Kontratu motak (5-11 artikulua). Administrazio kontratuak eta kontratu pribatuak (18-21 artikulua).

15. gaia. Sektore Publikoko Kontratuak (II). 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, onartzen duena sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua. Itunak egiteko askatasuna eta kontratuaren gutxieneko edukia (25-26 artikulua). Baliogabetasun araubidea (31-36 artikulua).

16. gaia. Datuen Babesa. 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 12koa, datu pertsonalen babesarena. Xedapen orokorrak (1-3 artikulua). Datuak babesteari buruzko printzipioak (4-12 artikulua). Pertsonen eskubideak (13-19 artikulua).

17. gaia. Gardentasuna. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunaren, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onarena. Aplikazio eremu subjektiboa (2-4 artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea (12-16 artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzea (17-22 artikulua).

18. gaia. Berdintasun Politikak. Printzipio orokorrak eta babesa. Politika publikoak: printzipio orokorrak (3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako: 3-22 artikulua). EAEko herri administrazioen esparruko neurriak (Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako: 18-22 artikulua).

2. GAI ESPEZIFIKOAK

19. gaia. Ekonomia Ituna (I). Lurralde historikoen eskumenak eta Estatuaren eskumenak. Printzipio orokorrak. Harmonizazio arauak eta lankidetzaren printzipioak. Kudeaketa arauak eta prozedura. Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa. Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordea. Arbitraje Batzordearen arautegia.

20. gaia. Ekonomia Ituna (II). Araudi aplikagarria, ordainarazteko eskumena eta lotura puntuak ondoko zerga figura hauetan: pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, erregai nuklear gastatuaren eta energia nukleoelektrikoa sortzearen ondoriozko hondakin erradioaktiboen ekoizpenaren gaineko zerga, erregai nuklear gastatua eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatueta gordetzearen gaineko zerga.

21. gaia. Ekonomia Ituna (III). Araudi aplikagarria, ordainarazteko eskumena eta lotura puntuak ondoko zerga figura hauetan: kreditu entitateetako gordailuen gaineko zerga, ondarearen gaineko zerga, oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, zerga bereziak, aseguru primen gaineko zerga, Berotegi efektua duten gas fluordunen gaineko zerga, jokoaren gaineko zerga, tasa eta exakzio parafiskalak eta tokiko zergak.

22. gaia. Zerga Harmonizazioa, Koordinazioa Eta Lankidetzaren. 3/1989 Legea, maiatzaren 30ekoa, martxoaren 6ko 4/1998 Legeak aldatua. Harmonizazioa eta zerga bakoitzaren alderdi harmonizatzaileak. Zentralizazioa zerga betebeharrak betetzean. Euskadiko Zergak Koordinatzeko Organoa.

23. gaia. Zergen Foru Arau Orokorra (I). 6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa. Zerga zuzenbidea: kontzeptua eta edukia. Zerga antolamenduaren iturriak. Zerga antolamenduaren printzipio orokorrak. Zergen Foru Arauaren erreserba.

24. gaia. Zergen Foru Arau Orokorra (II). Zerga arauen aplikazioa eta interpretazioa. Kalifikazioa, denbora eremua eta leku eremua. Zerga saihesteari aurkako klausula. Analogia zerga zuzenbidean. Simulazioa. Tributuak: kontzeptua eta helburuak. Zergak, tasak eta kontribuzio bereziak. Eremu juridikoaren eta zergen arteko harremana.

25. gaia. Zergen Foru Arau Orokorra (III). Zerga gaia eta salbuespenak. Sortzapena eta galdagarritasuna. Zerga betebeharrak nagusia. Zerga betebeharrak osagarriak. Zerga betebeharrak formalak. Zergapekoen eskubideak.

26. gaia. Zergen Foru Arau Orokorra (IV). Zerga oinarria: kontzeptua eta zehazteko metodoak. Likidazio oinarria. Karga tasa, kuota eta zerga zorra. Balioak egiaztatzea. Zerga zorra: xedapen orokorrak, zerga zorra azkentzea. Ordainketa. Preskripzioa. Konpentsazioa. Barkatzea. Zerga kredituaren bermeak.

27. gaia. Zergen Foru Arau Orokorra (V). Zerga betebeharrak. Zerga administrazioaren betebeharrak eta eginbeharrak. Zergapekoen eskubideak. Elkarren laguntza. Zergapekoak. Zergapeko motak. Oinordekoak. Jarduteko gaitasuna eta ordezkaritza zerga ordenan. Zerga egoitza.

28. gaia. Zergen Foru Arau Orokorra (VI). Zerga erantzukizuna. Erantzule solidarioak eta subsidiarioak. Prozedurak erantzukizun subsidiario eta solidario kasuetan.

29. gaia. Zergen Foru Arau Orokorra (VII). Zergen aplikazioa, printzipio orokorrak: zerga prozedurak. Informazioa eta laguntza zergapekoei. Gizartearen laguntza zergen aplikazioan.

30. gaia. Zergen Foru Arau Orokorra (VIII). Zergen aplikazioa: zerga jardunei eta prozedurei buruzko arau komunak. Zergen alorreko administrazio prozeduren berezitasunak: faseak, likidazioak, ebazteko betebeharrak eta ebazteko epea. Proba. Jakinarazpenak. Salaketa publikoa eta egiaztatze eta ikertzeko ahala eta eginkizunak.

31. gaia. Zergen Foru Arau Orokorra (IX). Zerga kudeaketaren jardunak eta prozedurak: xedapen orokorrak. Zerga kudeaketaren prozedurak: autolikidazio bidez hasitako prozedura eta aitorten bidez hasitako prozedura. Autolikidazio edo aitorten bidez hasitako prozeduren xedapen komunak. Ofizios hasitako prozedura zerga zorra likidatzeko. Balioak egiaztatze prozedura. Egiaztatze mugatuko prozedura.

32. gaia. Zergen Foru Arau Orokorra (X). Funtzioak eta ahalmenak. Ikuskatze jardunak eta prozedurak. Ikuskatze funtzioak eta ahalmenak. Interesdunaren agiriak aztertzea. Finketara sartzea eta ikuskatzea. Beste ikuskatze funtzio batzuk. Zerga ikuskatzeari kasu egiteko betebeharrak. Zergapekoen esku hartzea eta ordezkaritza. Ikuskatze jardunen agiriak: jakinarazpenak, eginbideak, txostenak eta aktak. Akta motak eta haiek izapidetzea.

33. gaia. Zergen Foru Arau Orokorra (XI). Zergabilketako jardunak eta prozedura: xedapen orokorrak. Premiamendu prozedura. Prozeduraren arau orokorrak. Premiamendu prozedura hastea eta garatzea. Premiamendu prozedura amaitzea. Erantzule solidarioen, subsidiarioen eta oinordekoen aurreko prozedura.

34. gaia. Zergen Foru Arau Orokorra (XII). Zehapen ahalaren printzipioak zerga arloan. Zerga arau-hauste eta zehapenen gaineko xedapen orokorrak. Zerga arau-hauste eta zehapenen subjektu erantzuleak. Zerga arau-hauste eta zehapenen kontzeptua eta motak. Diruzko zerga zehapenak kuantifikatzea. Zerga arau-hauste eta zehapenen erantzukizuna azkentzea.

35. gaia. Zergen Foru Arau Orokorra (XIII). Berrikuspena administrazio bidean: arau komunak. Berrikuspen prozedura bereziak. Zuzenbide osoz deusezak diren egintzak berrikusteko prozedura. Egintza deuseztagarrien kaltegarritasun deklarazioa. Errebokatzea. Akatsak zuzentzea. Bidegabeko sarrerak itzultzea. Berraztertze errekurtsoa: xedea eta izaera. Berraztertze errekurtsoa hasi, izapidetu eta ebaztea. Erreklamazio ekonomiko-administratiboak eta berrikusteko errekurtso berezia.

36. gaia. Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga (I). Izaera eta aplikazio eremua. Zerga gaia, errenta ez-zergapetuak eta salbuespenak. Zergadunak. Errentak indibidualizatzea. Zerga oinarria zehaztea. Lan etekinak.

37. gaia. Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga (II). Jarduera ekonomikoen etekinak: kontzeptua eta etekin garbia kalkulatzeko arauak. Ondare elementu lotuak. Zuzeneko zenbatespen arrunta, zuzeneko zenbatespen erraztua. Kapital higiezinaren eta higigarriaren etekinak.

38. gaia. Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga (III). Ondare irabaziak eta galerak: kontzeptua, kasu bereziak, irabazi salbuetsiak eta galera ez-konputagarriak, ondare irabazi edo galeren zenbatekoa, baloratzeko arau espezifikoak, berrinbertsio eta ondare irabazi justifikatu gabeak.

39. gaia. Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga (IV). Egozpenak nazioarteko garden-tasun fiskalaren araubidean. Paradisu fiskaletako inbertsio kolektiboko funtsetako bazkideen tributazioa. Errenta esleipena; denbora egozpena. Baloratzeko arau bereziak.

40. gaia. Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga (V). Errenta motak. Errenten integrazioa eta konpentsazioa. Likidazio oinarri orokorra eta aurrezkiarena. Zerga oinarriaren murriztapenak.

41. gaia. Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga (VI). Kuota osoa eta kuota likidoa. Familia kenkariak eta kenkari pertsonalak. Ezinduen ondare babesturako ekarpenen kenkaria. Ohiko etxebizitzaren kenkariak. Jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak. Dohaintzen kenkariak. Nazioarteko zergapetze bikoitzaren kenkaria. Kuota sindikalen eta alderdi politikoentzako kuota eta ekarpenen kenkaria. Kuota diferentziala eta zerga zorra.

42. gaia. Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga (VII). Baterako tributazioa. Zergaldia eta sortzapena. Zergaren kudeaketa: autolikidazioak. Konturako ordainketak. Behin-behineko likidazioak. Betebehar formalak. Zehapen araubidea. Jurisdikzio ordena.

43. gaia. Ez-Egoiliarren Errentaren Gaineko Zerga (I). Izaera, xedea eta aplikazio eremua exakzioa. Elementu pertsonalak: zergadunak, bizilekua Espainiako lurraldean, errenta esleipena, errentak indibidualizatzea, erantzuleak, ordezkariak, zerga egoitza. Zergapetzea: zerga gaia, Araban lortutako errentak, errenta salbuetsiak, zergapetze moduak eta eragiketa lotuak.

44. gaia. Ez-Egoiliarren Errentaren Gaineko Zerga (II). Establezimendu iraunkorren bidez lortutako errentak. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak. Egoiliarrek ez diren entitateen higiezinaren gaineko karga berezia.

45. gaia. Ondarearen Gaineko Zerga. Izaera, xedea eta aplikazio eremua. Zerga gaia eta ondasun eta eskubide salbuetsiak. Subjektu pasiboa. Ondare esleipena eta egozpena. Zerga oinarria eta likidazio oinarria. Sortzapena. Zerga zorra. Zergaren kudeaketa.

46. gaia. Sozietateen Gaineko Zerga (I). Izaera eta aplikazio eremua. Eragiketarako egiten diren lekua. Zerga gaia. Salbuespenak. Subjektu pasiboa. Zerga oinarria: kontzeptua eta zehaztea. Balio zuzenketak: amortizazioak.

47. gaia. Sozietateen Gaineko Zerga (II). Ondare elementuen balio galera. Arrisku eta gastuetarako hornidura. Gastu ez kengarriak. Balorazio arauak kostu gabeko eskualdaketen eta sozietate eragiketen kasuan.

48. gaia. Sozietateen Gaineko Zerga (III). Balorazio arauak: eragiketa lotuak, bizileku al-daketak, egoitza paradisu fiskalaren duten pertsona edo entitateekin edo haien zuzendutako eragiketarako eta atxikipenari lotutako zenbatekoak. Kontabilitate balioa merkatu balioarekin ordezkatzearen ondorioak. Dibidenduen nazioarteko zergapetze bikoitzaren tratamendua eta partaidetza establezimendu egonkorren bidez lortutako mozkin eta errentetan. Denbora egozpenaren arauak.

49. gaia. Sozietateen Gaineko Zerga (IV). Subkapitalizazioa. Aparteko mozkinen berrinbertsioa. Zerga oinarri negatiboen konpentsazioa. Likidazio oinarria: kontzeptua eta zehaztea. Zergaldia eta sortzapena. Zerga tasa. Kuota osoa, likidoa eta benetakoa.

50. gaia. Sozietateen Gaineko Zerga (V). Kenkariak: zergapetze bikoitza; inbertsioa eta enpre-sen finantzaketa sustatzeko eta jarduera jakin batzuk egiteko hobariak eta kenkariak. Kenkarien arau komunak.

51. gaia. Sozietateen Gaineko Zerga (VI). Zerga araubide bereziak. Enpresa txiki eta ertainak. Interes ekonomikoko elkarketak. Aldi baterako enpresa elkarteak. Arrisku-kapitaleko sozietateak eta funtsak. Enpresak sustatzeko eta eskualde garapen industrialerako sozietateak. Inbertsio kolektiboko funtsak. Ondare sozietateak.

52. gaia. Sozietateen Gaineko Zerga (VII). Zerga araubide bereziak: zerga baterakuntzako araubidea. Bat-egiteak, zatiketak, aktiboen ekarpenak, balio trukeak eta aktiboen eta pasiboen lagapen globalak.

53. gaia. Sozietateen Gaineko Zerga (VIII). Zerga araubide bereziak: meatzaritza. Hidrokarbu-
roen ikerketa eta ustiapena. Nazioarteko gardentasun fiskala. Finantza errentamenduko kontratu
jakin batzuk. Atzerriko baloreak edukitzeko entitateak. Entitate partez salbuetsiak. Etxebizitzen
errentamendura emanak dauden entitateak.

54. gaia. Sozietateen Gaineko Zerga (IX). Zergaren kudeaketa: entitateen indizea. Kontabili-
tate betebeharrak. Borondatezko errebalorizazioak. Kontabilizatu gabeko ondasunak eta eskubi-
deak. Aitorpena. Autolikidazioa eta behin-behineko likidazioa. Itzulketak. Konturako ordainketak.
Administrazioaren ahalmenak zerga oinarria zehazteko.

55. gaia. Kooperatiben Zerga Araubidea (I). Aplikazio eremua. Kooperatiben sailkapena.
Kooperatiba babestuak eta bereziki babestuak. Kooperatiba babestu gabeak. Aplikazio arau
bereziak sozietateen zergan.

56. gaia. Kooperatiben Zerga Araubidea (II). Kooperatiben bazkideak. Kooperatibei onartu-
tako zerga onurak. Kreditu kooperatibak. Kooperatiba elkarteen araubidea. Onura publikoko
eta gizarte ekimeneko kooperatibak.

57. gaia. Oinordetza eta Dohaintzen Gaineko Zerga (I). Izaera, xedea eta aplikazio eremua.
Kalifikazioaren printzipioa eta zergaren lotura. Zerga gaia. Zergadunak eta erantzuleak. Zerga
oinarria: arau orokorrak, "mortis causa" eskurapenatarako arau bereziak, bizien arteko kostu
gabeko eskualdaketatarako arau bereziak, aseguru arloko arau bereziak eta balioak egiaztatzea.
Likidazio oinarria. Zerga zorra. Sortzapena eta preskripzioa.

58. gaia. Oinordetza eta Dohaintzen Gaineko Zerga (II). Arau bereziak: ordezteak, fideikomi-
soak, ondasun erreserbak, beste instituzio batzuk, banaketa eta gehiegizko esleipena, podere
osoko gozamenek edo komisario bidezko testamentuz deferitutako oinordetzen tributazioa,
jarauntsia edo legatua arbuizatzea edo hari uko egitea, dohaintza bereziak, gozamenaren arau
bereziak, erabiltzea eta bizitzea eta pareko instituzioak, dohaintzak eta gainerako kostu gabeko
eskualdaketak metatzea, bizi aseguruengatik jasotako zenbatekoak metatzea. Betebehar for-
malak. Zergaren kudeaketa: autolikidazioa, aurkezteko epeak, luzapena eta etetea, zergaren
ordaintzea eta geroratzea eta ordainketa zatikatzea.

59. gaia. Balio Erantsiaren Gaineko Zerga (I). Izaera eta aplikazio eremua. Zerga gaia: onda-
sunak ematea eta zerbitzuak ematea. Salbuespenak. Eragiketa ez lotuak.

60. gaia. Balio Erantsiaren Gaineko Zerga (II). Europar Batasunaren barruko eskurapenak:
zerga gaia, ez zergapetzea, pareko eragiketak, salbuespenak, gauzatze lekua, sortzapena, zerga
oinarria eta subjektu pasiboa. Ondasunen inportazioa: zerga gaia, pareko eragiketak, salbues-
penak, sortzapena, zerga oinarria eta subjektu pasiboa.

61. gaia. Balio Erantsiaren Gaineko Zerga (III). Salbuespenak: barnekoak, esportazioei, es-
portazioen pareko eragiketei, zona salbuetsiei eta etete araubideei dagozkienak. Zerga gaiaren
gauzatze lekua.

62. gaia. Balio Erantsiaren Gaineko Zerga (IV). Zerga oinarria: arau orokorra eta arau be-
reziak. Zerga oinarriaren aldaketa. Subjektu pasiboak. Zergaren jasanarazpena. Zerga tasak.

63. gaia. Balio Erantsiaren Gaineko Zerga (V). Kenkariak: kenkaria egiteko eskubidearen
betekizunak eta mugak. Kenkari araubidea jarduera desberdinduko sektoreetan. Hainbanaketa
erregela. Kenkarien erregularizazioa. Jarduera enpresarial edo profesionalak hasi baino lehe-
nagoko kenkariak. Itzulketak.

64. gaia. Balio Erantsiaren Gaineko Zerga (VI). Araubide bereziak. Arau orokorrak. Araubide erraztua. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezia. Ondasun erabili, objektu artistiko, zaharkin eta bildumagaien araubide berezia.

65. gaia. Balio Erantsiaren Gaineko Zerga (VII). Inbertsio urrearekiko eragiketei aplikatzekoa den araubide berezia. Bidaia agentzien araubide berezia. Baliokidetasun errekaruaren araubide berezia. Entitate elkartearen araubide berezia. Kutxa irizpidearen araubide berezia. Telekomunikazio, irrati difusio edo telebista zerbitzuei eta bide elektronikoz emandakoei aplikatzekoak diren araubide bereziak. Subjektu pasiboan betebeharrak. Zergaren kudeaketa. Sarrera etetea. Arau hausteak eta zehapenak.

66. gaia. Ondare Eskualdaketa Eta Egintza Juridiko Dokumentatuen Gaineko Zerga (I). Izaera eta edukia. Zergaren lurralde aplikazioaren eremua. Ondare eskualdaketak. Zerga gaia: arau orokorrak, arau bereziak eta ez-zergapetze kasuak. Subjektu pasiboa. Zerga oinarria: arau orokorrak, arau bereziak eta beste erregela batzuk. Likidazio oinarria. Zerga kuota.

67. gaia. Ondare Eskualdaketa Eta Egintza Juridiko Dokumentatuen Gaineko Zerga (II). Sozietate eragiketak: zerga gaia. Subjektu pasiboa. Zerga oinarria. Zerga kuota. Egintza juridiko dokumentatuak: printzipio orokorrak. Notaritzako dokumentuak. Merkataritzako dokumentuak. Administrazioako dokumentuak. Hiru kargen xedapen komunak: zerga onurak, balioak egiaztatzea, sortzapena eta preskripzioa, betebeharrak formalak, zergaren kudeaketa eta likidazioa eta itzulketak.

68. gaia. Zerga Bereziak. Izaera eta aplikazio eremua. Fabrikazio Zerga Bereziak. Sailkapena. Aplikatzeko lurralde eremua. Kontzeptuak eta definizioak. Zerga gaia. Ez-zergapetze kasuak. Sortzapena. Subjektu pasiboak eta erantzuleak. Salbuespenak eta itzulketak. Gordetegiak eta biltegiak. Etete araubidea. Zerga oinarriak eta tasak. Jasanarazpena. Zirkulazioa, erreferentzia bereziarekin zirkulazio dokumentuei.

69. gaia. Alkoholaren eta Edari Alkoholdunen Gaineko Zerga. Alkoholaren eta edari alcoholdunen gaineko zerga berezien xedapen komunak: kontzeptuak eta definizioak. Salbuespenak. Itzulketak. Garagardoaren gaineko zerga: eremu objektiboa, zerga oinarria, zerga tasak. Ardoaren eta edari hartzituen gaineko zerga: eremu objektiboa, sortzapena, zerga oinarria eta zerga tasa. Tarteko produktuen zerga: eremu objektiboa, ez-zergapetze kasuak, zerga oinarria eta zerga tasa. Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga: eremu objektiboa, sortzapena, zerga oinarria eta zerga tasa. Artisanu destilazioaren araubidea. Uzta biltzailearen araubidea. Salbuespenak eta itzulketak.

70. gaia. Tabako Laboreen Gaineko Zerga. Eremu objektiboa. Ez-zergapetze kasuak. Zerga oinarria. Kontzeptuak eta definizioak. Zerga tasak. Salbuespenak. Itzulketak. Kudeaketako arau bereziak. Hidrokarburoen Gaineko Zerga. Aplikazio eremu objektiboa. Ez-zergapetze kasuak. Zerga oinarria. Kontzeptuak eta definizioak. Zerga tasak. Salbuespenak. Itzulketak. Erabilera profesionaleko gasolioaren itzulketa partziala. Nekazaritzan eta abeltzaintzan erabilitako gasolioaren itzulketa partziala. Kudeaketako arau bereziak. Erabilera debekuak eta mugak.

71. gaia. Zenbait Garraiobideren Gaineko Zerga Berezia. Zergaren zerga gaia, salbuespenak, itzulketak, murriztapenak, subjektu pasiboak, sortzapena, zerga oinarria, zerga tasak eta kuota. Zergaren likidazioa eta ordainketa.

72. gaia. Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren Gaineko Zerga. Izaera. Zergaren exakzioa. Zerga gaia. Zergadunak. Zerga oinarria. Zergaldia eta sortzapena. Karga tasa. Berotegi Eftektua Duten Gas Fluordunen Gaineko Zerga. Izaera eta eremu objektiboa. Zergaren exakzioa. Kontzeptuak eta definizioak. Zerga gaia. Salbuespenak. Sortzapena. Zergadunak. Zerga oinarria eta zerga tasa. Jasanarazpena. Kenkariak eta itzulketak. Zergaren kudeaketako arau orokorrak.

73. gaia. Aseguru Primen Gaineko Zerga. Izaera, leku eremua eta exakzioa. Zerga gaia, salbuespenak, zergaren sortzapena, zerga oinarria, subjektu pasiboak eta zerga tasa. Zergaren jasanarazpena. Autolikidazioa, sarrera eta urteko laburpen aitortpena. Joko Tributuaren Gaineko

Zerga. Izaera eta xedea. Aplikazio eremua eta exakziorako eskumena. Zerga gaia. Salbuespenak. Subjektu pasiboak eta erantzuleak. Zerga oinarria. Tributu tasak. Sortzapena. Betebehar formalak eta tributuaren ordainketa. Joko Jardueren Gaineko Zerga. Izaera. Zergaren exakzioa. Zerga gaia. Ez-zergapetze kasuak. Sortzapena. Zergadunak eta erantzuleak. Zerga oinarria. Joko modalitateak eta karga tasa. Likidazioa eta ordainketa.

74. gaia. Lege Eta Administrazio Erakundea. Erreklamazio ekonomiko-administratiboen prozedura arautzailea.

75. gaia. 40/2015 Legea,urriaren 1ekoa, sektore publikoaren araubide juridikoarena. Xedapen orokorrak (1-4 artikulua). Administrazio publikoetako organoak (5-24 artikulua). Zehatzeko ahalaren printzipioak (25-31 artikulua). Administrazio publikoen ondare erantzukizuna (32-37 artikulua). Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa (38-46 artikulua).

76. gaia. 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, onartzen duena sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua (I): xedapen orokorrak. Sektore publikoko kontratazioari buruzko xedapen orokorrak. Kontratuko alderdiak. Kontratuaren xedea, prezioa eta zenbatekoa. Sektore publikoko kontratazioetan eska daitezkeen bermeak. Kontratuak aldatzea.

77. gaia. 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, onartzen duena sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua (II): administrazio publikoen kontratuak prestatzea. Beste kontratu batzuk prestatzea.

78. gaia. 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, onartzen duena sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua (III): kontratuak esleitzea. Kontratazioaren teknika arrazionalizatzea.

79. gaia. 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, onartzen duena sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua (IV). Administrazio kontratuen ondorioak, haiek betetzea eta azkentzea, arau orokorrak. Arau bereziak obra kontratu, obra publikoaren emakida, zerbitzu publikoen kudeaketa, hornikuntza eta zerbitzuetarako, eta sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko lankidetzarako.

80. gaia. 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntza. Foru Arauaren aplikazio eremua (1-5 artikulua). Dirulaguntza publikoen xedapen komunak (6-19 artikulua). Arau hausteak eta zehapenak dirulaguntzen arloan (54-70).

81. gaia. Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa. 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena. Eremua. Organoak eta eskumenak. Auzitarako gaitasuna. Legitimazioa. Alderdien ordezkartza eta defentsa.

82. gaia. Arbitraje Batzordea: 13/1994 Euskal Legea, ekainaren 30ekoa. Eskumen arazoak. Arbitraje Batzordearen erabakia. Eskumen gatazka positiboak eta negatiboak. Eskumen gatazkak ebaztea.

83. gaia. Erakunde Antolamendua. 52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoarena. Foru Aldundiaren eta Batzar Nagusien arteko harremanak: gobernu jardunaren bultzada eta kontrola, Aldundiaren erantzukizuna Batzar Nagusien aurrean, eskumen gatazkak, araugintzarako eskuordetza. Foru Arau Proiektuak egitea.

84. gaia. Eskubide Kolektiboak. 7/2007 Legea, enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuarena.

85. gaia. Enplegu Publikora Sartzea. 7/2007 Legea, enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuarena eta 6/1989 Legea, euskal funtzio publikoarena. Zerbitzu harremana eskuratzea eta galtzea: enplegu publikora sartzea. Zerbitzu harremana galtzea.

86. gaia. Lanpostuak Hornitzea. 7/2007 Legea, enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuarena eta 6/1989 Legea, euskal funtzio publikoarena: lanpostuak hornitzea eta mugikortasuna.

87. gaia. Diziplina Araubidea. 7/2007 Legea, enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuarena eta 6/1989 Legea, euskal funtzio publikoarena.

88. gaia. Bateriaezintasunak. 53/1984 Legea: administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasun araubidea.

89. gaia. Gizarte Segurantza. Gizarte Segurantzaren araubide orokorra. Aplikazio eremua. Enpresak inskribatzea, afiliazioa, altak eta bajak. Altarekin parekatzen diren egoerak. Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean kotizatzea: betebeharraren sorrera. Kotizatzeke betebeharraren iraupena.

90. gaia. Gizarte Segurantza. Gizarte Segurantzaren araubide orokorraren babes jarduna. Kontingentzia babesgarriak. Gizarte Segurantzaren araubide orokorraren prestazioak. Aldi baterako ezintasuna, amatasuna, ezintasuna, erretiroa, heriotza eta biziraupena.